



# OPTIMA ON ETXEKO ASEGURUEN KANPAINAREN OINARRIAK

Kanpainaren helburua OPTIMA ON etxeko aseguru-poliza berrien kontratazioa sustatzea da. Poliza horiek, konpainiaren kontratazio-arauak ez ezik, kanpainaren baldintzak ere bete behar dituzte.

## 1. Kanpainaren datak:

Sustapena 2020ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2020ko abenduaren 31n amaituko da. Hala ere, eten edo bertan behera utzi ahal izango da edonoiz, horretarako bidezko arrazoirik bada. Sustapenaz baliatu ahal izateko, 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean kontratatu behar dira polizak (eragin-datak, berriz, 2021eko martxoaren 31ra arteko muga izango du).

## 2. Eskaintza:

Kanpainaren indarraldian zehar horren baldintzak betetzen dituzten polizak LABORAL Kutxaren [www.laboralkutxa.com](http://www.laboralkutxa.com) webgunearen bidez kontratatzen dituzten bezeroek 20 eurorainoko oparia jasoko dute.

## 3. Baldintza orokorrak:

- Kanpainaren datak: Eskaintzak etxeko aseguruaren kontratazio berrietarako balio du, betiere kanpainaren baldintzak betetzen badituzte eta 2020ko urtarrilaren 1etik 2020ko abenduaren 31ra bitartean kontratatzen badira.
- Etxe-aseguruaren eragin-data: 2021-03-31ra arte.
- Etxeak 50 urte baino gutxiago izan behar ditu.
- Etxebizitza-mota: pisua / jabekideen erkidegoko etxebizitza.
- Etxebizitzetan bizi diren jabeentzat. Errentatzaileak eta maizterrak kanpo daude.
- Poliza bakoitza urtero edo sei hilean behin ordaindu behar da eta ordainketak LABORAL Kutxan helbideratuta egon behar du.
- Arriskuak konpainiaren kontratazio-arauen barruan hartuko dira.
- Eskaintza ezin da beste kanpaina eta sustapen batzuetan erabili.
- Saria kontuan jasotzeko eskubidea ematen duen poliza ordaindu ezean, LABORAL Kutxak eskubidea izango du bezeroaren kontuan egindako ordainketa berreskuratzeko.
- Opariaren ordainketa polizaren eragin-dataren ondorengo 60 egunetan egingo da.
- Ezin da beste kanpaina eta kolektibo batzuekin batera erabili.

## 4. ETXE produktuaren baldintzak:

ON etxeko aseguruaren kontratazio berrietarako, betiere edukitzailearen kapital aseguraturua gomendatuaren parekoa edo handiagoa bada eta edukiarena 20.000 eurokoa edo gomendatuaren parekoa bada, azken hori 20.000 eurotik beherakoa izanez gero.

- **Sustatzailea:** Aseguru hauen bitartekaria Caja Laboral Bancaseguros SLU da, banka-aseguruetako operadore lotetsia, eta Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, OV-0072 klabearekin. Erantzukizun Zibila eta Finantza Ahalmena estalita ditu, indarrean dagoen legeriaren arabera. Arriskuaren aseguratzailea: Seguros Lagun Aro SA. Kontsultatu aseguratzaileak hemen: [www.laboralkutxa.com/eu/partikularrak/aseguruak](http://www.laboralkutxa.com/eu/partikularrak/aseguruak).
- **Aplikazio-eremua:** Kanpaina banaketa-kanal hauen bidez kontratatutako aseguruetan aplikatuko da: [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus) webgunea edo aseguruetan espezializatutako telefono bidezko arreta-zentroa (901 100 200), Seguros Lagun Aro SAren banka-aseguruetako operadore lotetsia den Caja Laboral Popularrena (Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian C572F20022109 zenbakiarekin dago inskribatuta).

